



Giro bikaina Kuadrillategi egunean / 2

Larunbatean egun guztiko jaia egin zuten Elgoibar eta Lasarte-Oriako gaztetxoek. Hesian taldearen kontzertuarekin amaitu zen egitaraua eta bukaeran poz pozik zeuden parte hartu zuten neska mutilak. Ginkana erraldoia, batu-kada tailerra, karaokea, joku ezberdinak eta kontzertua izan ziren arrakasta handiena izan zuten jarduerak. •



Jalgik hileroko prestatzen duen kultur egitarauan jada ez da Jam saiorik izango. Beste era bateko proposamenei egingo zaie lekua.

Azkenengo jam saioa Jalgin

Berrikuntzak izango ditu Kafe Antzokiko hileroko programazioak

Ostiralekoa izan da momentuz Jalgin egin den azken Jam sesioa. Aurrerago berriro formatu honi heltzea baztertzin ez badute ere, momentuz beste era bateko emanaldiak dituzte buruan antolatzaileek. Hauek aurreratu dutenez, finkatu gabe

badago ere, bakarlariei eman-go zaie aukera ostegunetan.

Balantze baikorra egin dute: 2 urtetan 20 saio egin dira eta musika era ezberdinekin gainera, jazz, folk, blues, rock, swing, afro, funk,... denetarik. Musika inprobisa-

zioa zaleei hurbiltzearekin batera, Beste alde on bat, bultzatzaileen iritziz, herriko musikariei parte hartzeko eman zaien aukera da eta alde ez hain ona, musikarien parte hartzea ez dela espero zena bezain ona izan, "18.000 biztanleko

herrian ez dakigu zergatik baina ez da oinarri sendorik osatu".

Saio gogoangarriak izan dira, Makulu Ken herriko taldeak afrikar perkusiojole batzuekin batera egin zutena edota Ibai Nikolai eta bere didgeridooarekin batera burutu zena. •

ALBISTEA / 3

GEDI enpresak 680.000 eurokin kiroldegi ondoko frontoia eta padel pista egingo ditu

KULTURA / 5

Euskararen 7. maratoiko DVD egin berriaren aurkezpen ikusgarria



Sasoeta-Zumaburu ikastolako eraberritzea ikuskatzen


Ostiralean, Sasoeta-Zumaburu ikastolako Zumaburuko eraikinean egin diren egokitze lanen emaitza ikusteko aukera izan zen.

Arantza Laka Foru Aldundiko hezkuntza ordezkarria, ikastolako zuzendaritza batzordea, Juan Pedro Risco hezkuntza-ikuskatzailea, Ana Urchueguia alkatea, udal zinegotziak, irakasleak eta gurasoak bildu ziren Haur Hezkuntzako eraikinean.

Ikastolako bertso-eskolako bi gazteok ongi etorria eman

eta Koru Goikoetxeak, Arantza Lakak eta Jone Altuna, herriko hezkuntzako batzorde buruak, hitz batzuk esan zituzten hezkuntza kalitateari buruz eta kalitatea lortzeko azpiegiturek duten garrantzia. Gainera, bai Koru Goikoetxeak, baita Jonek ere herriko haurrek Lasarte-Orian ikastea dutela helburu azpimarratu zuten.

Hitzen ostean, egokitu diren eremuak ikusi zituzten gelak, soinketa gela, komunak, jolaslekua,... Jangelan zeuden haurrekin ere hitz egin zuten. •



SUGATE

Sukaldeak



vegasa
Beti lehenengo egunean bezala

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

DESKONTU BEREZIAK
%20 desk. modelo desberdinetan

MARKATUKO PREZIO HOBEGARRAK !!

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • www.sugate.net

Gazte Kanpaldiak 2009



Izena emateko epea zabalik!

Hiru udaleku ezberdin!
INFORMA ZAITEZ!

Ttakun Kultur Elkartea • Geltoki kalea 4 • 943 371448



Pozik zeuden bi lagun kuadrillak jaialdia amaitu eta gero. Kontzertua amaitu zenean, Hesian taldekoekin batera argazkia atera zuten guztiek batera.

Kuadrillategiko gazteen egun guztiko jai

Larunbatean Elgoibar eta Lasarte-Oriako neska-mutilak elkartu ziren elkar ezagutzeko

TXINTXARRI

Larunbatean eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, giro bikainean burutu zen kuadrillategi eguna. Elgoibar eta Lasarte-Oriako 50 bat lagun elkartu ziren goizean goizetik ondo pasatzeko helburuarekin. Egun guztiko egitaraua zuten prest.

Goizean ginkana erraldoia egin zuten herri osoan zehar. Zenbait proba gainditu behar izan zituzten eta ondo moldatu ziren bi herrietako gaztetxoak.

Landaberri ikastolan jarraitu zuen gero festak. Bazkalostean tailer eta jolasak egin ziren bertan, batukada eta karaokea. Bietan oso ondo pasa zuten gazteek. Azkenik

iluntzean Hesian taldearen kontzertuarekin amaitu zen Kuadrillategi antolatutako jaialdia.

Larunbatean argi geratu zen gazteek Hesian taldea gogoko dutela eta taldea ezagutzen dutela, kontzertuak iraun zuen bitartean ikusi zenez. Bukieran guztiak batera argazki bat atera zuten. •



Elkar ezagutu dute Elgoibar eta Lasarte-Oriako gazteek.



Kuadrillategiko kamiseta dotoreak jantzita umore onean.



Hesian taldeak harrera oso ona izan zuen Lasarte-Oria eta Elgoibarko gazteen artean.



Gazteak ere kantari ibili ziren arratsaldean. Karaokeak arrakasta izan zuten.

Oriako ibaiertzeko eta frontoi berriko lanak esleitu ditu Udalak

Campezo Construcción eta GEDI dira lanak egingo dituzten enpresak

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak dagoneko esleitu ditu Tokian Tokiko Inbertsioko Estatuko Funtzarekin finantzatu diren obren kontratuak. Batetik, Oriako pabilioien atzealdearen eraberritzea *Campezo Construcción* SAU enpresak eramango du aurrera eta adjudikazioaren zenbatekoa 1.850.000 euro izan da. Bestetik, GEDI S.A. izan da kiroledegi ondoan eraikiko den frontoiaren eta padel pistaren proiektuaren esleipenduna, 680.000 euroko zenbatekoarekin.

Udalerriantzako bi proiektu garrantzitsu dira, ez bakarrik lanpostuak sortuko dituztelako, baizik eta etorkizunean sendotuko direlako.

Bi proiektuen exekuzioak abenduaren 31rako amaituta egon beharko du.

Proiektuen garrantzia

Oriako pabilioien atzealdea eraberritzeko proiektua ingurumen-ekintza ikusgarria izango da eta bere helburua orain degradatuta dagoen hiri-espazio bat errekuperatzea da. Ibaiaren erribera errekuperatuko da horrela, oinezkoentzako ibai ondoko pasealeku bat lortuz, eta zonalde berdeak eraberrituko dira.



Tokian Tokiko Inbertsioko Estatuko Funtzarekin finantzatu diren proiektuetako bat frontoi berria eta padel pista dira.

Aldi berean, jarraipena eman nahi zaie lehendik ibaiaren ondoan dauden pasealekuei. Gainera, eraberritze lan hauek guzuz horretan dauden pabilioentzako hobekuntza azpimarragarria suposatuko du. Ibilbidearen luzera 527 metrokoa izango da eta 4 metroko zabalera izango du: oinezkoentzako bi metroko espaloia eta beste bi bizikletzek bidegorriarentzako.

Estalitako frontoiaren eta padeleko pistaren eraikuntzari dagokionez, proiektu honek irtenbidea emango dio Oken-don aurreikusita zegoen frontoiaren lekualdaketari. Lekualdaketa hau Loidi-Barren eremura, udal kiroledegiaren ondoan dagoen partzelara egingo da.

Proiektu honek, udalerriko kirol ekipamenduen osaketa eta sendotzea

suposatuko du. Altuera ezberdineko bi bolumen izango dira eraikiko direnak, frontoia alde batetik eta padeleko pista bestetik. Azken honek, gainera, pareta prestatuta izango du aurrerago rokadromo bat jartzeko.

Instalazio berriaren estaldura argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko diseinatu da, ahal den neurrian argiztapenean aurreratzeko. •

LIBURU AZOKA

Pablo Barrioren *Armiarmategian* argitaratu da

Santurtziko *Serantes IX. Antzerki Lehiaketan* saritutako Pablo Barrioren lana apirilaren 23an, liburuaren egunean, Donostia-ko liburu azokan jarri zuten salgai. *Armiarmategian (isil-mihisilka)* da liburuaren izenburua eta Bilboko Artezblai argitaletxeak kaleratu du.

Liburuak Rosalito emaztea galdu eta gero, Alpontxoren gainbehera jasotzen du. Gainbehera horretan armiarmak izango ditu bilatu gabeko etsaiak. Armiarmak gizarteko orden bihozgabe baten metafora isladatzen du, eta baita bere baitako ahulezinen metafora ere.

Maitasun istorioa dakarkigu azken finean Pablok. Maitasun zintzo eta benetako, baina protagonistak inoiz ez adierazitakoa. Eta berau argitzeko armiarma bikotea izango du lagun, pertsonaia xeblere eta bitxiak, munduaren gaineko ikuspuntu ezberdina eskaintzen duena. Txikiak taminaz baina handiak izaeran. "Gu gara munduko ordenaren arduradun", aldarrikatuko dute.

Egileak intsektuari, bere baitan idatzitako kode konplexuei esker mugitzen den izakiarri, eskaini dio arrazioaren erabilera, eta batipat, gizakion jokoaren gaineko begirada ironiko, distiratsu eta umorez jantzitakoa. Haien esentziaz atera du, baita ere, antzezlanaren egituraketa, amaraunaren tankerakoa, hari mehe lotuekin eraikitako arkitektura biribilduan eternitate harrapatuz. •

Ikasteko ez dago adinik

In-formatzen Ikaskuntza Zerbitzuak antolatuta, Biyak Bat elkarteko hamahiru kidek 12 orduko informatika ikastaroa burutuko dute Usubilgo GLHBIn.

Bi astetan zehar, astelehen, astearte eta asteazkenean 16:00etatik 18:00etara

ordenagailuan trebe izaten ikasiko dute, hardware eta softwarea bereizten, karpetak egiten edo artxiiboak kopiatzen.

Lehengo astean hasi zen ikastaroa eta 6 ordu nahiko izan dira teknologia berriak menderatzeko. •



Ordenagailuan trebatzeko ikastaroko hiru saio egin dituzte Biyak Bateko kideek.



Beko Errota eta Goikalen lanak hasi dira

Loidi-Barren eremuko urbanizazio obrak direla eta, lehengo asteazkenean Beko Errota eta Goikaleko lanak hasi ziren. Lanek hiru hilabeteko iraupena izango dutela aurreikusia dago.

Udalak jakin arazi duenez, Bekota Errota 4 eta 11, Goikale 2,4,6 eta 8 eta Kontzeju Txiki 1,2 eta 3 zenbakiekin eragingo diete zuzenki lanek.

Era berean, lanak irauten duten bitartean, Kontzeju Txiki 1eko garajeetarako sarrera Beko Errotatik baimenduta egongo da. Lanak sarreran bertan dauden momentuan soilik galaraziko da kotxeen sarrera.

Aparkalekua martxan

Bestalde, lehengo ostegunean martxan jarri zuten, Antxueneta

plazaren ondoan eta etorkizuneko Loidi-Barreneko frontoiaren eta padel pistaren aurrean dagoen Kontzeju Txiki plazako behin-behineko aparkalekua.

Egungo aparkatzeko guneak, udal kiroledegiaren ondoan, martxan jarraituko du frontoi berria eta padela eraikitzeko lanak hasten diren arte. •

Gogoratzeko moduko 7. maratoia

- Ez ahazteko, laburpena, bideo klipa, kirol frogak eta beste jaso dituen DVDa salgai da 8 euroan.
- Aurkezpenean, gazteak, euskaldunberriak, elkarteak eta ezkutuan ari direnak omendu zituzten.

Hunkitu ere egin ziren herritar batzuk Euskararen 7. Maratoiko irudiak berriro ikusita. Ostiralean aurkeztu zen DVDa eta maratoiaren ordubeteko laburpena eman zen Kultur Etxeko areto nagusian. Ikustera hurbildu zirenak gustora gogoratu zituzten orduko bizipenak, "brduko egun zoriontsuak" zortzikotearen ordezkariak nabarmendu zuten. Zortzikotea zazpikote izan zen ostiralean, Jose Mari agirretxe ez baitzen kultur etxean izan beste hitzordu bat zuelako. Zazpikoteak, batetik gazteen eta euskaldunberrien parte hartzea nabarmendu eta omendu zuen, eta bestetik herriko elkarten eta ezkutuan lanean aritzen direnen lana eskertu zuten. Amaieran beste behin bero bero abestu eta dantzatu zuten bertan izan zirenek.

Euskararen 7. maratoian zortzikotean izan zirenek aurkeztu zuten DVDa. Beti bezain umoretsu atera ziren dantzan, Ilitz Olano makuluekin atzetik segi ezinik zuteka. Meltxor Artetxe eta Rebeka Garzes aritu ziren hasieran aurkezle lanetan eta eskerrak eman zieten bildu zirenei Tkunen eta Udalaren izenean. DVDa 8 euroren truke eskuratu daiteke eta bertan bideoklipa, kirol probak, ikasle ohien festibala, sagardotegi bira eta 7 maratoiak ikus daitezke, 7. Maratoiaren ordu beteko laburpenarekin batera.

Aurkezleek laburpena hasi aurretik nabarmendu zuten

maratoia gero eta dibertigarriagoa, alaiagoa eta dotoreagoa dela eta poz pozik gogoratuko dituztela "asteburu zoriontsu" hartan bizitakoak. "Korritzeko modukoa" maratoiaren leloa, bero bero abestia eta irudi gisa erabili zen musua etengabe ageri dira laburpenean.

Hasiera hasieratik nabari da umorea eta alaitasuna: txistu, dultzaina, txalaparta, dantza, musika, bertsoa,... Teresategira piñaburu bila egindako joan etorriak, kirol frogak, haurrentzako ekitaldiak, bonberoak, antzerkia,... urriaren 18 eta 19an Okendo inguruan egin ziren ekitaldi guztiak ageri dira

labur labur. Larunbateko ekitaldiak ikusi eta atsedean bat agindu zuten zortzikotekoek iazko maratoiaren alde onen artean bi nabarmentzeko eta gorai-pateko: gazteen eta euskaldunberrien parte hartzea.

Zortzi gaztetxo eta zazpi ikasle igo ziren oholtzara, oro har herri osoaren parte hartzea gorai-patu bazen ere, baraiena bereziki. Ikusleen txaloen artean Jokin Aierragarak hartu zuen hitza zera esateko, euskara gozatzeko dela "batzuk euskaldun jaio gara eta beste batzuk euskaldundu egin dira eta hori txalotzekoa da". Ondoren Jokinek gidatuta eta ikasleak zein gazteak maratoian "busti" egin zirenez, haizea, euria eta trumoi irudikatu ziren soinuen bidez eta azkenik olatu erraldoia areto guztira zabaldu zen.

Ondoren laburpenaren bigarren zatia eman zen, igandekoa. Igandean goizean goizetik berriro martxan zirenak, azken orduetan han segitzen zutela ikusi ahal izan zen. Amaieran ezkutuan lanean aritzen direnetako batzu igo zituzten oholtza gainera, eta guztiak, zortzikoteak zein ikuseek bero bero amaitu zuten ekitaldia. •



Maratoiko DVDaren aurkezpeneko hiru irudi. Zortzikoteak aurkeztu zuen ekitaldia eta amaieran bero bero bideo klipa dantzatu zuten berriro.



Zortzikoteak, euskara ikasten ari direnak eta gazteak omendu zituzten Maratoian izan zuten jarrerarengatik. Irudian, guztiak gero olatu erraldoi bihurtu zen haizearen soinua ateratzen.

TEL.: 943 372760

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK

Jalai
cafe bar

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

Kamisetak zure gustura apaintzeko ikastaroa

Orain arte Ttakunek antolatu dituen ikastaroekin jarraituz oraingoan Kamisetak egiteko ikastaroa antolatu da.

Ikastaroa lau egunetan emango da maiatzaren 9an, 16an, 21ean eta 28an eta ordu-egia larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta ostegunetan 15:00etatik 17:00etara izango da.

Egun bakoitzean teknika ezberdinak ikasteko aukera izango da. Maiatzaren 9an Arantxa Errastik marrazkiak 3Den egiten irakatsiko du, maiatzaren 16an Ainhoa Elizegik kamisetak zintekin, botoiekin, oihalekin... apaintzen, maiatzaren 21ean Vanessa Gimeno kamisetetan marrazkiak eta josketak egiten eta azkeneko egunean, maiatzaren 28an teknika guztien nahasketa egingo da.

Izena ematea

Matrikularen prezioa saio bakoitzeko 6 eurotako izango da eta ez da zertan ikastaro

osoa egin beharrik, bakoitzak aukeratzen du ze saiotan izena eman. Maiatzaren 7an bukatzen da izena emate epea.

Ikastaroan apaindu nahi den kamiseta ikasleak eramango du, beste materialak Ttakunek jarriko diru ikasleen eskura.

Ikastaro honetan kamisetak zure gustuko egingo dituzu apaingarriak jarritz, marrazki originalak eginaz... Bide batez etxean erabiliak eta baztertuta ditugun kamisetak eraldatzeko aukera izan daiteke, baita opari polit bat egiteko ere. •



Kamisetetan 3D marrazkiak egiten irakatsiko da ikastaroko saioetako batean.



Hainbat taldeek girotu zuten bazkalostea Donibane Garaziko Kantuaren egunean.

Egun osoa kantuan

Xumela korua, apirilaren 19an, Donibane Garaziko Kantuaren egunean parte hartu zuen.

Iparraldeko, zein Hegoaldeko 600 abeslari bildu ziren, horietako 31 lasarteoriatarrek, goizean Donibane Garaziko kaleetan zehar eta arratsaldean frontoian euskal doinuak abestuz.

Egun osoa umore onean igaro zuten Xumelako kideek. Gainera, beste taldeetako kideekin harremanean jartzeko aukera paregabea izan zen Kantuaren eguna.

Baina, abesteaz gain, dantzarako astia ere egon zen. Egunari amaiera emateko mutxikoak dantzatu baitzituzten lasarteoriatarrek. •

JUAN IRAOLA E HIJOS S.L.

ITURGINTZA

GASA

BEROKUNTZA

AIRE GIROTUA

ITURGINTZA

Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679

JAIALDIA

Euskal Eskola Publiko Berriaren aldarrikapena Aian

Maiatzaren 3 igandean, Euskal Eskola Publiko Berriaren aldarrikapena egingo da Aian. Sortzen-ikasbatuaz elkarteak urtero Iruñean antolatzen du Euskal Eskola Publikoaren Eguna. Aurten, XIV. edizioaren aldarrikapen nagusia Euskal Eskola Publiko Berri bat lortzea da, euskara eta euskal kulturatik abiatuta mundu oso bati zabaltzen zaion eskola, partehartzailea, integratzailea, hezkidetzan eta berdintasunean oinarritua. Aldarrikapen hori izango da Aian egingo den jaialdian ere nagusi.

Festa giroa eta aldarrikapena elkartuko dira eta horretarako egitarau zabala antolatu dute. Hasteko 10:00-12:00ak bitartean Aiako inguruetan mendi irteera bat egingo da, 12:00-13:00ak aldera jaialdia frontoian Gipuzkoako hainbat ikastola eta ikastetxeko ikasle, guraso eta langileen ikuskizunak Porrotx, Txapas eta Modestoren laguntzarekin. 14:00-16:00 artean, kantu bazkaria. Menua: lehenengoa, entsalada eta paella; bigarrena, redondoa eta saiheskia; postrea eta kafea. 16 euro. Izena emateko deitu 943 303504 astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara. 14:00-16:00 Haurrentzako talilerak Sortzen-Ikasbatuazeko Euskaraz Mintzako begiraleek zuzendurik. 16:00-18:00 Erromeria Modestorekin.

Aiako festak, batetik Iruñeko Takoneran maiatzaren 24an ospatuko den jai handia girotzeko eta iragartzeko xedea du, eta bestetik Sortzen Ikasbatuak elkarteak duen eskola ereduarekin bat egiten duten gipuzkoarren arteko harremanak sendotzeko ere bai.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak bere osotasunean sare publikoko ikastetxeak hartzen dituen erakunde bakarra da, eta bertan eskola komunitateko kide guztiek dute lekua, irakasle, guraso, eskola-langile eta ikasleek. •



Lasarte-Oriako dantzariak Usurbilgo Kaleko Antzerki Egunean.- Dantza emanaldi bikainak eskaini zituzten larunbat eguerdian Usurbilen, Lasarte Oriako dantza garaikideko eskolan ari direnek. Maider Oiarzabalekin ari diren zenbait talde aritu ziren, guztira adin ezberdinetako 60 bat lagun. 45 minutuko emanaldia osatu zuten lasarte-oriarrek Kale Antzerki Egunari beste ikuspuntu bat emanez. Gauean herriko Makulu Ken taldea aritu zen Antzerki Egunari agurra eman zion kontzertuan. Hasieran kosta zitzairen ikusleak berotzen joatea baina segituan giro polita sortu zen eta usurbildar zein kanpotik hurbildutakoak animatzea lortu zuten.



Ainhoa Merzero sopranoak emanaldi bikaina eskaini zuen ostiral iluntzean Brigitarren komentuan, Danok Kidek antolatzen dituen IV. Musika Topaketaren barruan. Ariel Cruz Laurencio kontratenore kubatarrekin batera eta Alberto Saez Puente organistaren laguntzarekin, XVIII. mendeko eliz musika ekarri zuen Merzerok oraingoan: Juan Sebastian Bach-en Pasi3n segun San Mateo lanaren zati bat, Fray Agustin de Etxeberria frantziskotarraren Miserere eta bukatzeko Giovanni Battista Pergolesiren den Stabat Mater maisulana entzuteko aukera izan zuten kontzertura hurbildu zirenek. Antolatzaileek Etxeberriak Arantzazun sortu zuen Miserere nabarmendu zuten. Brigitarren komentuko eliza bete egin zen musika emanaldi berezia ikusteko.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ENRIQUE PIMOULIER argazkilaria *Beste aldetiko begiradak* izeneko erakusketa jarriko du Jalgin, XI. Jardunaldi Internazionalisten egitarauaren barruan. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.

Igandea, 10

Erromeria

AZKORTEKO ERROMERIA ospatuko da. Bertan meza, herriko bertsolariak, trikitaliak, herri-kirolak... Izango dira. Azkorteke ermitan, 11:00etatik aurrera. **EUSKARAZ**

Ostirala, 15


Dantza

CONCIERTO DESCONCIERTO izena duen Centro Coreografico Galego, Entremans konpainiaren lan berria, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Asteartea, 19

Hitzaldia

AMAGANDIK EDOSKITZEA, JANARIA BAINO ASKOZ GEHIAGO gaitzat hartuta hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok Sanitate Departamentuak gurasotzako antolatutako zikloan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. **GAZTELANIAZ**



Gomazko pilotako pala finala

OSTADAR Kirol Fundazioak antolatutako GOMAZKO PILOTAKO XV. PALA TXAPELKETAKO FINALA eta 3 eta 4. postuak jokatu dira Udal Kirol Guneko pilotalekuan. Azken lau urteetan, Oscar Lazcano eta Iñigo Arluziagak irabazi dute txapela, aurtun ere haiek izango ote dira irabazleak?

IGANDEA 3
KIROL GUNEKO PILOTALEKUAN

Oharrak

Odol ateratzeak astelehenean

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egin-gin dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Zabaleta auzoko festak antolatzeko bilera

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

Ttakunek begirale izateko aukera

Ttakunek udaren antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

Lehen Sorospenen ikastaroa

DYA Gipuzkoak antolatuta datorren apirilaren 27an Lehen Sorospen eta sorosle ikastaro berri bati hasiera emango zaio Usurbilen. Hiru aste iraungo du ikastaroak eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da astele-

henetik ostiralera Parrokiko lokaletan (Kale Nagusia 25). Ikastaroa gainditzen duenak, EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera izango du. Matrikularen kosta, ikastarorako txostena barne delarik 90 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearen. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefonora.

CNT-AITren leku aldaketa

CNT-AIT-ren egoitza aldatu egin dute. Orain arte Lasarte-Oriako Golf plazan zegoen bulegoa utzi eta hemendik aurrera Donostian izango dira, konkretuki Ferrerrias plazan (Anoeta futbol zelaiko inguruan).

Marrakzi eta pintura ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagun elkar-tekari jakin arazten du, maiatzaren 1 eta 2an ez dela pintura eta marrakzi klaserik egongo Manuel Lekuona Kultur etxea itxia dago eta.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Eskutitzak

Arrazoi anitz lan osasuna defendatzen jarraitzeko

Aste batzuk badira zerbitzu enpresa batetako ordezkari sindikal bat bere lantokian suertatutako egoera baten berri galdezka etorri zitzaiala. Prebentzio Zerbitzuak urtero egiten duen osasunaren zaintza horri sinadura bidez uko egiteko presioa jasan behar izan zuten bertako langileek. Beste enpresa askotan bezala horren helburua argia da hemen ere. Enpresa honek, prebentzioak eragiten dituen gastuak ekidin nahi ditu eta horretarako, erabateko prebentzioa egin beharrean istripuen arriskua murriztera mugatzen dira langileek osasunaren izan ditzaketen gainontzeko galerak edo arriskuak alde batera utzita.

Salaketarako argudioak badauzkagu. Enpresa batzuk ezkututzen saiatu badira ere, azken urte hauetan laneko ezbehar kopurua jaitsi egin da guztion ahaleginari esker. Gaur egun enpresetan egiten ez den erabateko prebentzio hori da lan gaixotasunak eta bestelako gaitzak galarazten dituen. Erabateko prebentziarik gabe gaitz horien kausak lantokian dira,

eta gaitz horiek dira prebentzioak berak baino kostu eta sufrimendu gehiago sortarazten dituztenak. Hala ere, enpresaburuek mozkinak handitu nahi dituztenean ohikoa izaten da prebentzioa edo langileriaren osasunaren babesaren truk egitea.

Datuei begiratu besterik ez dago. Mutuen mende dauden Besteren Prebentzio-Zerbitzuen egoera ekonomikoari begiratzeko gero %70a baino gehiago egoera txarrean dagoela ikus daiteke. Ez da kasualitatea. Gauzak gaizki egin dituzte eta datuak horren ondorio dira, txostenak betetzera mugatu da prebentzio lana orain arte eta prezio merke eta mantengaitzekin. Beraz, enpresaburuek zailtasun ekonomiko garaian hau da ekiditen duten lehen gastua. Hala ere, aipatzekoa da geroz eta zordun gehiago dagoela laneko istripu eta gaixotasunen kotizazioen ordainketetan.

Bestetik, Espainiako Enpresaburuen Elkarten Konfederazioak, eskual patronala barne, geroz eta indar gehiagorekin, laneko absentismoaren kontrol

gehiago eskatzen die Mutuei. Hau guztia, krisiaren ondorioen beldurra dela eta ezintasun iragankor eta ohiko gaixotasun nagatiko bajen egun kopurua jaitsi denean ari da gertatzen. Langileak estutzen dituzte enpresei Zapateroren Gobernuak aipatu kudeaketa Mutuen bitartez gauzatzen badute %3aren pizgarria ematen zaienean. Gaixotasunaren jatorria lanean dagoen edo ez gutxi axola zaie. Asmo bakarra, osasun publikoaren dualizazio eta pribatizazioa da gaixoak eta Osakidetza langileak iruzurtzat salatzen dituzten bitartean.

Hau da laneko gaixotasunak ezkutatzearen ondorio larria, prebentzioa ahaztu egiten da, laneko minbizien kasuan esaterako, erabat bazterten da. Ondorioz, Gobernu zentralak laneko gaitz edo istripuen kotizazioak murrizten ditu, bideratua dagoen diru-fondoak erabiltzen ez direlako. Laneko istripuek baino askoz ere koste handiagoa duten gaixotasun hauen gastua kanpora botatzen da eta gizarteak

ordaindu behar izaten du ohiko gaixotasunetat hartzen direlako. Osakidetza kudeatzaileek ez diote garrantzia handirik ematen iruzur honi. 2008. urtean bakarrik, lanekoak izan zitezkeen 41 gaixotasun hauteman ziren eta hala ere ez da medikuntzat lan gaixotasunen jatorriaren inguruko ikastaro bat bera ere eskaini.

CCOO Euskaditik, apirilaren 28a, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna iristear dugula, milaka herritarrei eta enpresa batzuei eragiten dien krisi ekonomikoa egonda ere prebentzioa errentagarria dela gogorazti nahi dugu. Biktimen mina ekiditen da batetik eta enpresari, euren irudia hondatzea, isun ekonomikoak, prestazioen errekarguak eta kalte-ordainak aurrezten dituzte bestetik. Prebentzio politiken lausotzeak istripu eta gaixotasun kopuruaren handitzea besterik ez du ekarriko. Horregatik, osasunaren zaintza espezifikoak barneratzen duen prebentzioaren kalitatea indartzeko gaur inoiz baino beharrezkoagoa dugu.

Eragile sindikalen akordioa da inplikazioa ezinbesteko dirak gai honi konponbidea emateko. Babes Ofizialeko eskual etxebizitzak eredu: VISESAko lan istripu kopurua %39,4ra jaitsi da, eraikuntzaren sektoreari erreparatuta zifra baxua dugu hau. 2008. urtean, estatuan erregistratutako lan gaixotasunen %14,8a EAEn azaldu zen, Euskadi laneko minbiziaren zerrendako lehen postuetan kokatzen da 11 gaixorekin. Oraindik egiteko dagoen lanaren erakusle.

CCOOon borrokan jarraituko dugu, indartsuago eta ozenago ahal bada ezkutuan dauden gaixotasun hauek plazaratu eta prebentzioaren kalitatea hobetzeko. Pausoz pauso eta guztiok batera aurrera egin dezakegu beste batzuen helburu ilunak alde batera utzita, euren gezurrik ez gaituzte lan osasunaren aldeko borrokatik aldentzeko, 11 arrazoi baitaude borroka hau babesten jarraitzeko.

Jesús Uzkudun Illarramendi

CCOO Euskadiko Lan Osasuneko Idazkaria

IZARRA BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.



Geltoki kalea 19, Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, Tel.: 943 364945